

# **Euskara ikasten duten Lasarte-Oriako bizilagunei subentzioak emateko prozedura.**

## **SARRERA**

Udalbatzarrak, 2001eko urriaren 31n eginiko osoko bilkuran, behin betikotzat onetsi zuen “Lasarte-Oria herrian eta udalean euskararen erabilpena normalizatzeko arauei buruzko udal-ordenantza”. Ordenantza hori 2002ko otsailaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ordenantza horren 15. artikulua honela dio:

*“Lasarte-Oriako Udalak ohiko irakaskuntzaz kanpo euskara ikasten duten bizilagunei subentzioak emango dizkie. Ikasle guztiek izango dute aukera, ematen diren bekak jasotzeko; ikastaro bakoitzean indarrean dagoen matrikulazio tarifaren % 40 da jaso ahal izango den kantitatea, beti ere eskatzen duenak honako baldintza hauek guztiak betetzen baditu:*

- a) Gutxienez, ikastaro osoan zehar, % 90eko asistentzia izan.*
- b) Gutxienezko aprobetxamendua gainditu; hori, ikastetxe bakoitzeko Zuzendariaren oniritzipean, dagokion irakasleak ziurtatu beharko du.*

*Duen eragina kontuan izanik, bost urtetik beherako umeren bat duten eta udalerrian erroldaturik dauden gurasoek, herrian eskolaz kanpoko jardueretan ari diren monitoreek, eta udalerriko dendetan lan egiten duten merkatariak, ikastaro bakoitzean indarrean dagoen matrikulazio tarifa oinarri dela, bekaren %75 jaso ahal izango dute, baldin eta lehen aipatu diren baldintza guztiak betetzen badituzte.”*

Artikulu horretan agindutakoa ongi betetzeko, puntu hauek zehaztu dira:

## **SUBENTZIONATUKO DIREN IKASTAROAK**

- a) Euskaltegiko ohiko ikastaroak (egunean 1,5, 2, 3 edo 5 eskola-ordukoak). Astean gutxienez 7:30 ordukoak.
- b) Barnetegiak, gutxienez 3 hilabete segidan baldin badira.
- c) Alfabetatzeko eta EGAKo ikastaroak, gutxienez 120 ordukoak baldin badira.
- d) Helburu eta kolektibo jakinei zuzenduriko moduluko ikastaroak. Kasu horietan, banan bana aztertuko eta erabakiko du Udalak ikasleak subentzionatuak izango diren ala ez.

- e) Udako ikastaroak (euskaltegian bertan edo barnetegietan). Ikasturtean zehar aurreko lau ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik subentzionatuko dira, betiere bekak jasotzeko baldintzak betetzen badituzte.

\* Sistema multimedien bidez bideratutako autoikaskuntzako ikastaroak ez dira, oraingoz, diruz lagunduko. HABEk jarduera hori arautzen eta definitzen duenean, horiek subentzionatzeko modua ere orduan definituko du Lasarte-Oriako Udalak.

– Ikastaro bat diruz laguntzerakoan, matrikula ordaintzen den ikastaroaren iraupen osoa hartuko da kontuan. Ikastaroa abiatu ondoren hasten diren ikasleek eta ikastaroa amaitu baino lehenago uzten dutenek ez dute diru-laguntzarik jasotzeko aukerarik izango (ordaintzen den ikastaroaren iraupen osoari buruzko asistentziaren baldintza betetzen ez badu behintzat).

– Diruz lagundutako ikastaroetako matrikulak inoiz ez dira izango Lasarte-Oriako Udaleko Euskaltegiko prezio publikoak + %10 baino handiagoak. Ordaindutako matrikulak kopuru hori baino handiagokoak balira, muga horretaraino bakarrik ordainduko ditu Udalak (dagokion subentzioaren ehuneko aplikatuz). Salbuespenik baldin bada, banan bana aztertuko dira.

– Barnetegiak izango dira aurreko arauaren salbuespen. Kasu horretan, eskolei dagozkien matrikulak izango dira subentzionagai. Ostatu-gastuak ez dira diruz lagunduko.

### **ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

- a) Lasarte-Orian erroldatua egotea, gutxienez ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du. Baldintza hori ez dute bete behariko herrian eskolaz kanpoko jardueretan ari diren monitoreek eta udalerriko dendetan lan egiten duten merkatariak.
- b) Lasarte-Oriako Udalarekin inolako diru-zorrik ez edukitzea. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.
- c) 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den eguna baino lehenago. Eskatzaileak NANren fotokopiaz akreditatuko du.
- d) Ikasketa ofizial edo homologaturik eskaintzen duen euskaltegiren batean matrikula ordainduta edukitzea eskaera egin duen egunean. Matrikularen ordainagiriaren bidez akreditatuko du eskatzaileak.
- e) Ikastegiko programari jarraituz, ikastaroa amaitzea (baja emanez gero, ez da ikaslea diruz lagunduko), ikastaroaren eskola-orduen %90eko asistentzia izatea gutxienez, maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egitea eta gutxieneko aprobetxamenduaren azterketak gaindituta edukitzea. Baldintza hori eskatzaileak dagokion euskaltegiko zuzendariaren ziurtagiriaren bidez akreditatuko du.

- f) Bost urtetik beherako umeren bat duten eta udalerrian erroldaturik dauden gurasoek, herrian eskolaz kanpoko jardueretan ari diren monitoreek eta udalerriko dendetan lan egiten duten merkatarien kasuan, aipatutako ordenantzak arautzen duen subentzioa jasoko badute, orain arte zehatutako baldintzetaz gain, hauek ere bete beharko dituzte:
- f.1.) Gurasoen kasuan, 5 urte edo gutxiago dituen haurra izatea ikastaroa hasten den eguna baino lehenago. Familia-liburuaren fotokopiaren bidez akreditatuko du eskatzaileak.
  - f.2.) Monitorean kasuan, Lasarte-Orian eskola-orduz kanpoko jarduera bateko monitorea aritzea (entrenatzaileak, katekistak, monitorea...) ikastaroak irauten duen ikasturtean. Jarduerak, gutxienez, sei hilabeteko iraupena izan behar du, eta astean 4 orduko harreman zuzena hurrekin edo gaztetxoekin. Jarduera hori antolatzen duen erakundeak sinatutako ziurtagiriaren bidez akreditatuko du eskatzaileak. Udaleko Euskarako Zerbitzuak horretarako prestatutako ereduak erabili beharko ditu erakundeak.
  - f.3.) Merkatarien kasuan, Lasarte-Oriako udalerrian kokatuta dagoen establezimendu komertzial batean lanean aritzea, gutxienez ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik. Ezaugarri hori segurantza sozialaren (TC-2, ziurtagiria edo kontratua) edo jarduera ekonomikoaren zergaren bidez akreditatuko du eskatzaileak.
- g) Eskatzaileak Udalaren laguntza bat baino gehiago jasotzeko eskubidea baldin badu, bakarra jasoko du, interesatuak besterik esan ezean, handiena.
- h) Eskatzaileak Udalaz kanpoko diru-laguntzaren bat jaso badu, hori kreditutako duen agiria aurkeztu beharko du eskatzaileak. Udalaren diru-laguntza, Udalaz kanpo jasotakoaren eta eta udal ordenantzaren arabera dagokionaren arteko diferentzia izango da.
- i) Eskatzaileak Udalaz kanpoko diru-laguntzarik jaso ez badu, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du, Udaleko Euskarako Zerbitzuak horretarako prestatutako ereduak erabiliz.

## **ESKAERAK**

Interesatuak subentzio-eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte, bulego-orduen barruan eta ondoko jarraibideen arabera:

- 1.- Subentzio-eskaera dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak. Eskaerak betiere agiri guztiekin aurkeztu beharko dira.
- 2.- Udalak eskura jarriko dizkion eskaerarako eta zinpeko deklaraziorako ereduak behar bezala beteta aurkeztuko ditu, eta eskaerari erantsiko dizkio subentzioak jasotzeko baldintzak akreditatzeko eskatutako agiriak.
- 3.- Baldintzak akreditatzeko agiriak jatorrizkoak izango dira. Fotokopiei dagokienez, Udalak berak egiaztatu beharko ditu, eskatzaileak jatorrizkoak aurkeztuta.

- 4.- Subentzio-eskaeraren bat zerrendatutako dokumentazio guzti-guztia berarekin batera ez dakarrela aurkeztuz gero, interesatuari 10 eguneko epean gabezia betetzeko edo beharrezko diren agiriak eransteko aukera emango zaio, jakinaraziz ezen, horrela egiten ez badu, bere eskaeran etsizat emango dela eta beste tramiterik gabe artxibatuko zaiola, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71. artikuluari jarraituz.

### **SUBENTZIOAK ERABAKITZEA**

- a) Eskaerak aurkeztuta, Udaleko Euskarako Batzordearen esku jarriko dira, aurretik Euskarako Zerbitzuko arduradunaren txostena erantsita.
- b) Euskarako Zerbitzuko arduradunak, eskaerari erantsiko dion txostenean, eskaeran azaldu eta akreditatuaren arabera eskatzaileak baldintza guztiak betetzen dituenentz adieraziko du, eta egindako eskaerari zenbateko subentzioa dagokion.
- c) Euskarako Batzordeak erabaki-proposamena aurkeztuko dio alkateari. Alkateak hartuko du, aipatutako erabaki-proposamen hori ikusita, diru-laguntza emateari buruzko erabakia, dekretu bidez.

### **SUBENTZIOAK ORDAINTZEA**

- a) Udalak hiru hilabeteko epean ordainduko ditu onetsitako diru-laguntzak, interesatuak ikastaroa amaitutakoan eskaera egin eta gero.

# **Procedimiento para la concesión de subvenciones a alumnos de euskera residentes en Lasarte-Oria.**

## **INTRODUCCIÓN**

El Pleno Municipal, en sesión celebrada el 31 de octubre de 2001, acordó definitivamente la Ordenanza Municipal sobre Normas para la Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento y en el Municipio de Lasarte-Oria, que fue publicada en el Boletín Oficial de Guipúzcoa del 8 de febrero de 2002.

El artículo 15 de dicha ordenanza dice:

*“El Ayuntamiento de Lasarte-Oria subvencionará a los vecinos que estudien euskera fuera de la enseñanza reglada. Todos los alumnos podrán optar a la posible concesión de Becas, siendo la misma del 40% sobre la tarifa de matriculación vigente en cada curso, siempre y cuando los solicitantes reúnan todos y cada uno de los siguientes requisitos:*

- a) Garantizar, como mínimo, un 90% de asistencias a clase durante el correspondiente curso.*
- b) Haber superado las pruebas de aprovechamiento mínimo del curso, certificado por el profesor correspondiente, con el visto bueno de la Dirección del centro.*

*Debido a su especial repercusión lingüística, podrán optar a una beca del 75% sobre la tarifa de matriculación vigente en cada curso, siempre y cuando los solicitantes reúnan todos y cada uno de los requisitos anteriormente señalados, los padres y madres empadronados en el municipio y que tengan algún hijo de hasta 5 años, los monitores de actividades extraescolares que desarrollen esa actividad en el municipio y los comerciantes que trabajen en establecimientos del municipio.”*

Para el efectivo cumplimiento de lo establecido en dicho artículo, se determinan los siguientes puntos:

## **CURSOS QUE SE SUBVENCIONARÁN**

- a) Cursos ordinarios de los euskaltegis (de 1,5, 2, 3 ó 5 horas lectivas diarias), con una duración mínima de 7:30 horas semanales.
- b) Internados de al menos 3 meses sucesivos.
- c) Cursos de alfabetización y de EGA, de 120 horas como mínimo.

- d) Cursos modulares dirigidos a objetivos y colectivos concretos, en cuyo caso el Ayuntamiento estudiará y resolverá individualmente si subvencionará o no a los alumnos.
- e) Cursos de verano (en el propio euskaltegi o en internados). Se subvencionarán únicamente en el caso de alumnos que, cumpliendo los requisitos para percibir la subvención, hayan realizado alguno de los anteriores cuatro tipos de cursos a lo largo del curso.

\* Los cursos de autoaprendizaje impartidos mediante sistemas multimedia, de momento, no se subvencionarán. Cuando HABE regule y defina dicha actividad, también definirá entonces el Ayuntamiento de Lasarte-Oria la forma de subvencionar tales cursos.

– A la hora de subvencionar un curso, se considerará la duración total del curso por el que se abona la matrícula. Aquellos alumnos que comiencen una vez iniciado el curso y aquellos que lo abandonen antes de su finalización no tendrán opción de percibir subvención alguna (a no ser que cumplan el requisito de la asistencia respecto a la duración total del curso por el que se abona).

– Las matrículas de los cursos subvencionados en ningún caso serán superiores a los precios públicos + 10% del Euskaltegi Municipal de Lasarte-Oria. En caso de que la matrícula abonada supere dicha cantidad, el Ayuntamiento sólo pagará hasta dicho límite, aplicando el porcentaje de la subvención correspondiente. En caso de que haya excepciones, se estudiarán individualmente.

– Los internados serán una excepción de la norma anterior. En tal caso, serán objeto de subvención las matrículas correspondientes a las clases. Los gastos de alojamiento no serán subvencionados.

### **REQUISITOS A CUMPLIR POR LOS SOLICITANTES**

- a) Estar empadronado en Lasarte-Oria con una antelación mínima de un año respecto al inicio del curso. Este requisito, que será comprobado por el propio Ayuntamiento, no tendrán que cumplirlo los monitores que ejerzan en actividades extraescolares en la localidad o los comerciantes que trabajen en establecimientos del municipio.
- b) No tener deudas con el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, requisito que será comprobado por el propio Ayuntamiento.
- c) Tener cumplidos 16 años antes de la finalización del curso, requisito que acreditará el solicitante mediante fotocopia del DNI.
- d) Tener abonada la matrícula en un euskaltegi que ofrezca estudios oficiales u homologados el día en que realice la solicitud. El solicitante lo acreditará mediante justificante del abono de la matrícula.

- e) Finalizar el curso siguiendo el programa del centro (en caso de causar baja, el alumno no será subvencionado), tener una asistencia mínima del 90% de las horas lectivas, realizar todos los exámenes correspondientes a cada nivel y tener aprobados los exámenes de aprovechamiento. Dicho requisito será acreditado por el solicitante mediante certificado expedido por el director del euskaltegi correspondiente.
- f) En el caso de padres de niños con edad inferior a los cinco años y empadronados en el municipio, de monitores que ejerzan en actividades extraescolares en la localidad y de comerciantes que trabajen en establecimientos del municipio, para que puedan percibir la subvención regulada por la mencionada ordenanza, además de los requisitos especificados hasta ahora, deberán cumplir los siguientes:
  - f.1.) En el caso de los padres, tener un niño de menos de cinco años de edad antes del día en que comience el curso. El solicitante lo acreditará mediante fotocopia del libro de familia.
  - f.2.) En el caso de monitores, ejercer de monitor en una actividad extraescolar en Lasarte-Oria (entrenadores, catequistas, monitores...) el año escolar en que se imparta el curso. La actividad ha de tener una duración mínima de seis meses y una relación directa de 4 horas semanales con los niños o los chicos. El solicitante lo acreditará mediante certificado firmado por la entidad organizadora de la actividad, que deberá utilizar el modelo elaborado al efecto por el Servicio Municipal de Euskera.
  - f.3.) En el caso de comerciantes, estar trabajando en un establecimiento comercial sito en el municipio de Lasarte-Oria con una antelación mínima de un año respecto al inicio del curso. El solicitante acreditará dicho aspecto mediante la seguridad social o el impuesto de actividades económicas.
- g) Si el solicitante tiene el derecho de percibir más de una ayuda municipal, recibirá solamente una, la mayor, salvo que el solicitante manifiesta otra cosa.
- h) Si el solicitante ha recibido una subvención extramunicipal, deberá presentar el documento que lo acredite. En ese caso, la subvención municipal será la diferencia entre lo recibido desde otra instancia y lo que le corresponde según la ordenanza municipal.
- i) Si el solicitante no ha recibido ninguna subvención extramunicipal, deberá presentar la correspondiente declaración jurada, para lo que deberá utilizar el modelo elaborado al efecto por el Servicio Municipal de Euskera.

## **SOLICITUDES**

Los interesados deberán presentar las solicitudes de subvención en el Registro General del Ayuntamiento, en horario de oficina, conforme a las siguientes pautas:

- 1.- El interesado deberá presentar la solicitud de subvención dentro de los quince días siguientes a la finalización del correspondiente curso. Las solicitudes deberán presentarse siempre acompañadas de toda la documentación.
- 2.- Presentará debidamente cumplimentados los modelos de solicitud y de declaración jurada que le facilitará el Ayuntamiento, acompañando a la solicitud la documentación exigida para acreditar los requisitos para recibir la subvención.
- 3.- La documentación para acreditar los requisitos serán originales. En el caso de fotocopias, deberá verificarlos el propio Ayuntamiento, mediante la presentación de los originales por el solicitante.
- 4.- En caso de que se presente una solicitud de subvención sin que le acompañe la totalidad de la documentación enumerada, se concederá al interesado un plazo de 10 días para subsanar la deficiencia o para incluir la documentación necesaria, con la advertencia de que, en caso de no hacerlo así, se le considerará como desistido en su solicitud, que será archivada sin más trámite, de conformidad con el artículo 71 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre.

### **DETERMINACIÓN DE LAS SUBVENCIONES**

- a) Una vez presentadas las solicitudes, se someterán a la Comisión Municipal de Euskera, previo informe del responsable del Servicio Municipal de Euskera.
- b) El responsable del Servicio de Euskera, en el informe que adjuntará a la solicitud, expresará si el solicitante cumple todos los requisitos según lo expuesto y acreditado en la solicitud, así como la cuantía de la subvención que corresponde a la solicitud realizada.
- c) La Comisión de Euskera elevará a la alcaldía una propuesta de resolución. Será el alcalde quien, en vista de la mencionada propuesta de resolución, adopte mediante decreto la resolución sobre la concesión de la subvención.

### **ABONO DE LAS SUBVENCIONES**

- a) El Ayuntamiento abonará las subvenciones aprobadas en un plazo de tres meses a partir de la realización de la solicitud por parte del interesado una vez finalizado el curso.